

Gosea eta kezka psikikoak

Karlos Zabala

"Gosea"

Knut Hamsun

euskaratzailea: Juan Mari Mendizabal

Ibaizabal, 1990

Kristianiako —Osloko— kaleetan barrena igarotzen da Andreas Tangen. Ahoan sartu berri duen txirbila murtxikatzen ari da, jan gabeko hiru eguneko gosea lasaitu nahirik; lagunengana jotzen du eta bere jantzi zaharrak bahitetxean saltzen saiatzen da, diru apur bat eskuratzearren; ez daki ostatuko andreak utziko dion han lo egiten beste gau batez, aspalditik errentarik ordaindu ez diolako. Eta toki lasai baten bila dabil artikulu bat idatzi eta ea egunkariren batean argitaratzen dioten, kazetaria bait da Andreas Tangen. Hala ere, kezka fisiko horiek baino gehiago, kezka psikikoek aztoratzen diote izpiritua; sentibera da oso, eta kanpoan ikusi eta sentituek damuak, ametsak, zorabioak sorterazten dizkiote gogoan. Norvegiako literaturan iraultza izan zen 1890eko nobela Knut Hamsun Nobel saridunak idatzitako hau.

Euskaldunon Egunkaria, 1992-04-24